

Basauriko Udala /

Administrari teknikaria

1. ARIKETA

A erdua

EUSKARAZ

Durango
2025/05/03



1 Zein dira Espainiako antolamendu juridikoaren balio nagusiak, 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera?

- 1a) Elkartasuna, berdintasuna, autonomia eta askatasuna.
- 1b) Askatasuna, justizia, berdintasuna eta aniztasun politikoa.
- 1c) Ordena eta aurrerapena.
- 1d) Berdintasuna, justizia, senidetasuna eta autonomia.

2 1978ko Espainiako Konstituzioaren 55.2 artikuluaen arabera, «gizabanako jakin batzuen» oinarritzko eskubideak eteteko, beharrezkoa da:

- 2a) Legezko erabakia.
- 2b) Esku-hartze judiziala.
- 2c) Arauzko erabakia.
- 2d) Gobernuaren nahitazeko esku-hartzea.

3 Espainiako Konstituzioa. Udalerria dela eta, baieztapen hauetatik zein da zuzena?

- 3a) Kontzeju irekiko sisteman diharduten udalerrietan izan ezik, udalari dagozkio udal-gobernua eta udal-administrazioa; alkateak eta zinegotziek osatzen dute udala.
- 3b) Auzotarrek hautatzen dute alkatea, zuzenean, sufragio unibertsal, berdina, aske, zuzeneko eta isilpekoaren bidez.
- 3c) Alkate hautatua izateko, zinegotzien botoen gehiengo soilak behar dira; gehiengo hori lortzen ez bada, boto gehien dituen zerrendako burua izango da alkate.
- 3d) Erantzun guztiak zuzenak dira.

4 Nork aukeratzen ditu Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko epaileak?

- 4a) Estatu kideetako gobernuak.
- 4b) Europako Parlamentuak.
- 4c) Europako Batzordeak.
- 4d) Europako Kontseiluak.

5 Europako arau hauetatik, zein EZ da egintza lotesle juridikoa?

- 5a) Erregelamenduak.
- 5b) Zuzentarauak.
- 5c) Irizpenak.
- 5d) Erabakiak.

6 Estatutuak (26. art.) honela dio Eusko Legebiltzarraren osakeraz eta bertako kideen hautaketaz:

- 6a) Lurralde historiko bakoitzeko ordezkari-kopuru berak osatuko du Eusko Legebiltzarra.
- 6b) Hauteskunde-barrutia bakarra izango da: Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldea.
- 6c) Eusko Legebiltzarra sei urterako hautatuko da.
- 6d) Zeharkako sufragio sekretuaren bidez hautatuko dira ordezkariak.

7 Estatutuaren arabera (41. art.), Itunaren edukiak zein printzipio errespetatu behar ditu?

- 7a) Lurralde historikoetako erakunde eskudunek zerga-araubidea mantendu, ezarri eta arautu ahal izango dute beren lurraldean, Estatuaren zerga-egitura orokorra kontuan hartu gabe.
- 7b) Lurralde historiko bakoitzaren barruan, batzar nagusiek ordainaraziko, kudeatuko, likidatuko, bilduko eta ikuskatuko dituzte zerga guztiak.
- 7c) Euskadik Estatuari egingo dion ekarpena kupo orokor bat izango da, lurralde historiko bakoitzari dagokionaz osatuta, Autonomia Erkidegoak bere gain hartzen ez dituen Estatuaren karga guztietarako ekarpen gisa.
- 7d) Aurreko erantzunak zuzenak dira

8 Barne-sustapen bertikala, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuan aurreikusia, honetan datza:

- 8a) Gradu, kategoria, maila eta antzeko beste kontzeptu batzuetan aurrera egitea, lanpostuz aldatu beharrik izan gabe.
- 8b) Lanpostuen egituraren gora egitea, lanpostuak betetzeko prozeduren bidez.
- 8c) Kidego batetik edo lanbide-sailkapeneko azpitaldeko eskala batetik (edo talde batekotik, baldin eta azpitalderik ez badu) goragoko beste batera igotzea.
- 8d) Azpitalde profesional bereko kidegoetara edo eskaletara iristea.

9 Zer dio Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuak funtzionarioen ordainsariei buruz?

- 9a) Bi kontzepturen inguruan antolatzen dira: ordainsari arruntak eta aparteko ordainsariak.
- 9b) Soldata, lanbide-sailkapeneko talde bakoitzari esleituia, oinarrizko ordainsarietako bat da.
- 9c) Hirurtekoak desagertu egin dira funtzionario guztientzat.
- 9d) Aparteko ordainsaria oinarrizko ordainsari bat da, eta diru-zenbatekoa hiru urtean behin finkatu daiteke.

10 Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren arabera...:

- 10a) Bitarteko funtzionarioak izendatu eta hiru urtera amaituko da bitartekotasuna.
- 10b) Bitarteko funtzionarioak izendatu eta sei urtera amaituko da bitartekotasuna.
- 10c) Bitarteko funtzionarioak izendatu eta urtebetera amaituko da bitartekotasuna.
- 10d) Bitarteko funtzionarioak izendatu eta hamar urtera amaituko da bitartekotasuna.

11 Administrazioako enplegatuen jarduna ebaluatzeko sistemak honako irizpide hauen arabera izango dira beti:

- 11a) Gardentasuna eta eraginkortasuna, besteak beste.
- 11b) Gardentasuna eta efizientzia, besteak beste.
- 11c) Objektibotasuna eta eraginkortasuna, besteak beste.
- 11d) Gardentasuna eta inpartzialtasuna, besteak beste.

- 12 Enplegatu publikoek arduraz bete beharko dituzte esleitura dituzten zereginak eta interes orokorrak aintzat hartuta, Konstituzioari eta gainerako ordenamendu juridikoari men eginez, eta, besteak beste, honako printzipio hau betez:**
- 12a) Efizientzia.
 - 12b) Austeritatea.
 - 12c) Independentzia.
 - 12d) Bikaintasuna.
- 13 Ekintza hauetatik, zein EZ da sartzen datu pertsonalen tratamenduaren barruan?**
- 13a) Bilketa.
 - 13b) Erregistratzea.
 - 13c) Babestea.
 - 13d) Egituratzea.
- 14 Helburua mugatzearen printzipioari jarraituz, datu pertsonalak xede hauekin bilduko dira:**
- 14a) Xede zehatzak.
 - 14b) Xede esplizituak.
 - 14c) Xede legítimoak.
 - 14d) Aurreko hiru erantzunak zuzenak dira.
- 15 Zer dio urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena) informazio osagarri edo lagungarriaz (70.4 art.)?**
- 15a) Ez da administrazio-espeditarearen parte izango.
 - 15b) Kontzeptu horretan sartzen dira, besteak beste, oharak, zirriborroak, iritziak eta laburpenak.
 - 15c) Aurreko a) eta b) erantzunak zuzenak dira.
 - 15d) Aurreko a) eta b) erantzunak okerrak dira.
- 16 Zer dio urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena), kopia autentikoei buruz (27. art.)?**
- 16a) Kopia autentikoei jatorrizko dokumentuen baliozkotasun eta efikazia bera izango dute.
 - 16b) Kopia autentikoei jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera izango dute, baina efikazia ez.
 - 16c) Kopia autentikoei jatorrizko dokumentuen efikazia bera izango dute, baina baliozkotasuna ez.
 - 16d) Kopia autentikoei ez dute izango ez jatorrizko dokumentuen baliozkotasun bera, ezta efikazia bera ere.
- 17 Zer da digitalizazioa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen arabera (27. art.)?**
- 17a) Datuak modu digitalean erregistratzea, herritarrek hala eskatuta.
 - 17b) Prozesu teknologiko bat, zeinaren bitartez magnitude fisiko bat, testu bat edo seinale analogiko bat irudikapen digital bihurtzen baita.
 - 17c) Prozesu teknologiko bat da zeinaren bitartez paper-euskarria edo beste euskarri ez-elektroniko bat duen dokumentu bat dokumentuaren irudi kodetu, leial eta osoa duen fitxategi elektroniko bihurtzen baita.
 - 17d) Informazio jarraitu bat zenbaki digital bihurtzea edo kodetzea.

18 Hauetatik, nork du administrazio publikoen aurrean jarduteko gaitasuna?

- 18a) Arau penalen arabera jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko edo juridikoek.
- 18b) Adingabeek, edozein jarduketa egiteko.
- 18c) Ondare independente edo autonomoek, erregelamendu batek hala adierazten duenean.
- 18d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

19 Zein gai arautzen dira lege organikoen bidez?

- 19a) Konstituzioan jasota ez dauden eskubideen garapenari buruzkoak.
- 19b) Toki-ordenantzak onartzeari buruzkoak.
- 19c) Hauteskundeetarako araubide orokorra onesten dutenak.
- 19d) Autonomia-estatutuak onartzen dituztenak bakarrik.

20 Hierarkian eskumenik ez duen organo batek emandako egintza bat baliozkotu daiteke?

- 20a) Goragoko organoak baliozkotu dezake eskumena duena bada.
- 20b) Baliozkotu daiteke, baldin eta bien nagusi hierarkikoak baimentzen badu.
- 20c) Ezin da inoiz baliozkotu.
- 20d) Automatikoki baliozkotzen da, hartzaileak onartzen badu.

21 Izapide-egintzak direla eta:

- 21a) Ezin dira inola ere aurkaratu.
- 21b) Egoera jakin batzuetan aurkara daitezke.
- 21c) Administrazio-bidea agortzen badute soilik aurkaratzen dira.
- 21d) Interesdunak aldeztu aurretik eskatuta aurkaratzen dira.

22 Zein egintzak izan dezake atzeraeragina?

- 22a) Kalterako diren egintzek.
- 22b) Zehapen-egintzek.
- 22c) Eskubideak murrizten dituzten egintzek.
- 22d) Deuseztatutako beste egintza batzuen ordeztatu diren egintzek.

23 Nola jakinarazi behar dira obligaziodunen aldeko ordainbideren bat daramaten jakinarazpenak?

- 23a) Bitarteko elektronikoen bidez.
- 23b) Inoiz ere ez bitarteko elektronikoen bidez.
- 23c) Organo emaileak egokitzen jotzen duen moduan.
- 23d) Ez dira jakinarazi behar.

24 Zer gertatzen da interesduna EZ badago bere bizilekuan jakinarazpenaren unean?

- 24a) Etxean dagoen 14 urtetik gorako edozein pertsonak har dezake, nor den jasota uzten badu..
- 24b) Jakinarazpena beste 3 aldiz egiten saiatu behar da.
- 24c) Etxean dagoen edozein pertsonak har dezake, nor den jasota uzten badu..
- 24d) Jakinarazitzat jotzen da.

25 Zein kasutan erabil daiteke ondarearekiko premiamendua?

- 25a) Diru-zenbateko likido bat ordaintzeko betebeharra dakarten egintzetan.
- 25b) Egintza guztiz pertsonaletan.
- 25c) Beteazpen subsidiarioa egoki ez den egintzetan.
- 25d) Irmoak ez diren egintzetan.

26 Zer dakar egintza baten forma-akatsak?

- 26a) Deuseztasun-kasua.
- 26b) Deuseztagarritasun-kasua.
- 26c) Deuseztagarritasuna, egintzak bere helburua lortzeko formazko ezinbesteko baldintzak betetzen ez dituenean.
- 26d) Irregularitasun bat, baina inoiz ere baliogabetasunik ez dakarrena.

27 Nor dago behartuta Administrazioarekiko harremanak elektronikoki egitera?

- 27a) Herritar guztiak.
- 27b) Adin nagusiko herritarrak.
- 27c) Pertsona juridikoak.
- 27d) Pertsona fisiko guztiak.

28 Salaketa dela eta:

- 28a) Salaketa aurkezteak esan nahi du salaketa aurkeztu duen pertsona interesdun bihurtzen dela.
- 28b) Idatziz aurkeztu behar da.
- 28c) Salaketa aurkezteak ez du esan nahi aurkeztu duen pertsona, besterik gabe, interesdun bihurtzen denik.
- 28d) Bide telematikoen bitartez aurkeztu behar da.

29 Informazio publikoaren tramitean parte hartzen dutenak...:

- 29a) Prozeduran interesdun direla jotzen da.
- 29b) Prozeduran interesdunak dira, eskubideen titularrak badira.
- 29c) Parte hartzeak ez ditu, besterik gabe, interesdun bihurtzen.
- 29d) Interesdunak dira, interes legitimoen titularrak badira.

30 Noiz ebatzi behar da kaltegarritasun-deklarazioaren prozedura?

- 30a) Prozedura hasi eta 6 hilabete igaro baino lehen.
- 30b) Prozedura hasi eta 3 hilabete igaro baino lehen.
- 30c) Administrazio-egintza eman zenetik 3 urte igaro baino lehen.
- 30d) 1 urte igaro baino lehen, administrazio-egintza eman zenetik.

31 Zer ondorio du administrazio-errekurtsoa jartzeak?

- 31a) Errekurritutako egintzaren eraginkortasuna eteten du.
- 31b) Ez du aurkaratutako egintzaren betearazpena eteten.
- 31c) Egintza irmo bihurtzen du.
- 31d) Egintzak administrazio-bidea agortzen du.

32 Aukeratu erantzun zuzena.

- 32a) EZIN da ondare-erantzukizunik eskatu Konstituzioaren aurkakotzat deklaratu den lege bat aplikatzen datozen kalteengatik.
- 32b) EZIN da ondare-erantzukizunik eskatu Europar Batasuneko Zuzenbidearen aurkako lege bat aplikatzen datozen kalteengatik.
- 32c) Administrazio-xedapenak administrazio-bidean deuseztatzeak berez EZ dakar kalte-ordainerako eskubidea.
- 32d) Administrazio-egintzak administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordenan deuseztatzeak berez dakar kalte-ordainerako eskubidea.

33 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen ondorioetarako, EZ dira sektore publiko:

- 33a) Fundazioak, baldin eta ondarearen zatirik handiena subjektu pribatuak ekarritako ondasun edo eskubidez osaturik badaukate modu iraunkorrean.
- 33b) Gizarte Segurantzari laguntzen dioten mutualitateak.
- 33c) Nortasun juridikorik gabeko funtsak.
- 33d) Unibertsitate publikoak.

34 Zer dira kontratu txikiak?

- 34a) Obra-kontratuak baldin badira, balio zenbatetsia gehienez berrogei mila eurokoa duten kontratuak.
- 34b) Obra-kontratuak baldin badira, balio zenbatetsia berrogeita hamar mila eurotik beherakoa duten kontratuak.
- 34c) Obra-kontratuak baldin badira, balio zenbatetsia hirurogei mila eurotik beherakoa duten kontratuak.
- 34d) Zerbitzu-kontratuak baldin badira, balio zenbatetsia gehienez hamar mila eurokoa duten kontratuak bakarrik.

35 Hitz egin dezagun erregulazio harmonizatuko obra-kontratuez. Lehia-elkarriketetan eta berrikuntzarako elkarketetan, eskaerak aurkezteko epeak:

- 35a) Erdira murriztu daitezke.
- 35b) Heren bat murriztu daitezke.
- 35c) Bost egunera murriztu daitezke.
- 35d) EZIN dira murriztu.

36 Kontratu publikoak ingurumenari eragiten badio edo eragin badiezaioke, preskripzio teknikoak honako irizpide hauek aplikatuz zehaztuko dira:

- 36a) Trantsizio ekologikoa.
- 36b) Jasangarritasuna eta eraginkortasun energetikoa.
- 36c) Trantsizio ekologikoa eta ingurumena errespetatzea.
- 36d) Iraunkortasuna eta ingurumena babestea.

37 Adierazi zein den erantzun okerra.

- 37a) Euskal udalerriek, nahi badute, herritarren zati bati bakarrik eragiten dioten kontsulta bereziak egin ahal izango dituzte.
- 37b) Tokiko gobernuarentzat, garrantzi bereziko erabaki publikoei buruz egiten dituzten herri-galdeketa lotesleak izango dira.
- 37c) Politika publikoei buruz herrietan egiten diren galdeketa, Europar Batasunetik kanpoko atzerritarrek ere har dezakete parte.
- 37d) Garrantzi bereziko erabaki publikoei buruz toki-mailan egiten diren herri-galdeketa irekiak bozketa bidez burutuko dira, baina botoa emateko epea jarraikako edo txandakako hamabost egunera artekoa izan ahalko da, osoko bilkuraren erabaki arrazoituaren arabera.

38 Bizkaiko udal batek aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dionean, jendaurrean jarri beharko du:

- 38a) Bost egunez.
- 38b) Hiru hilabetez.
- 38c) Hamabost egunez.
- 38d) Hilabetez.

39 Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeen aurrekontuei buruzko foru-arauaren arabera, aurrekontua behin betiko onartzea:

- 39a) Toki-korporazioko udalbatzak (plenoak) baino ezin du egin.
- 39b) Alkateak berak egin dezake.
- 39c) Udalbatzak (plenoak) edo tokiko gobernu-batzarrak egin dezakete.
- 39d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

40 Zer egintzaren bidez deklaratzeko da badela kreditu bat -gastu baimendu eta konprometitu batetik eratorria- toki-erakundeari eska dakioketena?

- 40a) Gastu-konpromisoa.
- 40b) Gastuaren onarpena eta kitapena.
- 40c) Ordainketa agintzea.
- 40d) Erantzun horietako bat ere ez da zuzena.

41 Toki-erakundeen honako diru-sarrerak hauetatik zein da kreditu bat?

- 41a) Beren eskumenen eremuko isun eta zehapenen emaitzak.
- 41b) Prezio publikoak.
- 41c) Kontribuzio bereziak.
- 41d) Kreditu eragiketen emaitzak.

42 Zein tributuk kargatzen du tokiko herri jabariaren erabilera pribatiboa?

- 42a) Tasak.
- 42b) Prezio publikoak.
- 42c) Kontribuzio bereziak.
- 42d) Zergak.

43 Zein aurrekontu printzipiori dagokio honako formulazio hau? Aurrekontuetan likidatu beharreko eta aintzat hartu beharreko eskubide eta betebeharrak guztiak agertu behar dira, hurrenez hurren, inolako salbuespenik gabe.

- 43a) Finantzen orekaren printzipioari.
- 43b) Orokortasun edo unibertsaltasun printzipioari.
- 43c) Lotura ezaren printzipioari.
- 43d) Osotasun printzipioari.

44 Nola arautuko da udalerriak sortzeko edo ezabatzearen ahalmena?

- 44a) Toki-erregimenari buruzko autonomia-erkidegoetako legeen bidez.
- 44b) Foru Aldundietako arauen bidez.
- 44c) Estatuko legeen bidez.
- 44d) Herritarren interesen arabera.

45 Erroldaren datuak:

- 45a) Beste administrazio publiko batzuei utzi dakizkieke, eskatzen badituzte.
- 45b) Ezin dira erabili estatistika ofizialak egiteko.
- 45c) Edonola ere, besterenezinak dira.
- 45d) Lehenengo bi erantzunak zuzenak dira.

46 Zein udalerritan dago Tokiko Gobernu-batzarra?

- 46a) Denetan.
- 46b) 10.000 zuzenbideko biztanletik gorakoetan.
- 46c) 5.000 zuzenbideko biztanletik gorakoetan baino ez.
- 46d) 5.000 zuzenbideko biztanletik gorakoetan eta hortik beherakoetan ere bai, hala ezarrita badago beren erregelamendu organikoetan edo hala erabakitzen bada Udalbatzan.

47 Zenbat denboraz egon behar du fusio baten ondoriozko udalerri batek bere horretan, segregatzeko moduan egotea?

- 47a) Hamar urte.
- 47b) Hogeita bost urte.
- 47c) Bost urte.
- 47d) Berrogeita hamar urte, non eta Ministroen Kontseiluak ez dion lehenago baimena eman lege organiko baten bidez.

48 2/2016 LEGEA, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Esaldi hauetatik, zein da OKERRA?

- 48a) Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetan, foru-arauek ezarriko dute haien antolamendu-araubidea.
- 48b) Baliteke zinegotzi batek eskuordetutako boto bat baino gehiago izaterik.
- 48c) Baliteke alkateren batek izaera orokorreko arau-xedapenak ematerik.
- 48d) Udalerrietan baliteke alkateordetzaren figura sortzerik.

49 Ekitaldi ekonomikoa bat etorriko da:

- 49a) Urte fiskalarekin.
- 49b) Urte naturalarekin.
- 49c) Legezko urtearekin.
- 49d) Ez du zertan data bakar batekin bat etorri beharrik, baldintza bakarra 12 hilabete irautea da.

50 Aurrekontu-kredituek izaera hau dute:

- 50a) Abiarazlea (espeditiboa) eta loteslea.
- 50b) Abiarazlea eta kontsultiboa
- 50c) Mugatzailea eta kontsultiboa.
- 50d) Mugatzailea eta loteslea.